

PRODUKTUAREN AURKEZPENA

Plastikozko Uretako Xurgagailu (PUX) da gure produktuaren izena.

Uretan dauden plastikoak xurgatzen dituen hodi batean oinarritzen da produktu hau.

Jende askok gaur egun badaki gure planetaren egoera eta askok hau aldatu nahi dute, beraz gure asmakizuna jende hauen gustukoa izango da.

Gure enpresaren tamaina erraldoia izango da. Giza baliabideari dagokionez, bost bazkide eta bostehun soldatapeko langile izatea pentsatu dugu eta, fakturazio aldetik, 250.000.000 €-ko diru-sarrerak espero ditugu urte amaierarako.

Gure ekonomia-jarduera produktu baten banaketa da, beraz, hirugarren sektoreko enpresa sortzen ari gara.